kutxabank gestión

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak
# ASTEKO LABURPENA

2018ko martxoaren 26tik martxoaren 30erako astea

---

- **INGURU MAKROA**:
  - ASTEKO DATUEN PODIUMA
  - KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI…

- **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

- **GURE IKUSPEGIA**

# INGURU MAKROA

kutxabank gestión

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## EUROPA: KPI




### Datuaren analisia

spainiako KPIa % 0,1 igo zen martxoan, urte arteko % 1,2raino. Martxoko KPIaren gorakadaren razoi nagusiak zerbitzu turistikoen garestitzea, Aste Santuagatik, eta elikagaien eta edari ez koholikoen prezioen egonkortasuna izan dira, 2017ko hil berean izan zuten beherakadaren dean.

errialdeei begira, inflazio-tasa Alemanian ere igo zen, % 1,6raino, eta Frantzian % 1,5eraino.

### Adierazlearen azalpena

KPIa hilero prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun nultzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, “erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen lena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo xikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

## :UROPA: KONFIANTZA EKONOMIKOA




### Datuaren analisia

uroguneko konfiantza ekonomikoa hirugarren aldiz jarraian jaitsi zen martxoan, nahiz eta maila tuei eutsi. 112,6 puntutakoa izan zen (113,3 espero ziren), aurreko hileko 114,2 puntuetatik. eheraka hori industria, zerbitzu eta xehekako saltokien sektorean gertatu zen batez ere. Aitzitik, gonkor mantendu zen kontsumitzaileen artean, eta gora egin zuen eraikuntzan.

### Adierazlearen azalpena

;entimendu Ekonomikoaren Adierazlea (ESI) Europako Batzordeak argitaratzen du hilero, eta :uropako kontsumitzaile eta enpresarien konfiantza neurtzen du. Euroguneko ekonomiaren ›eraren adierazlea da. Bost konfiantza-adierazlez osatuta dago: industriaren konfiantza-adierazlea % 40), zerbitzuen sektorearen konfiantza-adierazlea (% 30), eraikuntzaren konfiantza-adierazlea % 5), kontsumitzaileen konfiantza-adierazlea (% 20) eta xehekako merkataritzaren konfiantza-ıdierazlea (% 5).

kutxabank gestión

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## AEB: KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA




### Datuaren analisia

onférence Board-en arabera, kontsumitzailearen konfiantzak atzera egin zuen martxoan, aurreko lean lortutako joan den 17 urteetako maximotik, kontsumitzaileen konfiantzaren eta aurreikuspen konomikoen beherakadak eraginda. Hala eta guztiz ere, maila oso altuetan jarraitu zuen.

### Adierazlearen azalpena

tatu Batuetako kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, hau da, ntsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. The Conference Board erakundeak 67az geroztik hilero argitaratzen duen indizea da, eta Estatu Batuetako 5.000 familiei egindako kesta batean bildutako datuetan oinarritzen da. Inkesta horretan, enpleguaren eta negozioaren orbere konturako langileen kasuan) gaur egungo egoerari eta datozen sei hilabeteetarako rreikuspenei buruz galdetzen zaie, baita familiaren diru-sarrera guztiei buruz ere. ontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina baxua bada, zkunde ekonomikoaren uzkurdura eragingo du.

## AEB: BPGd




### Datuaren analisia

017ko laugarren hiruhilekoko AEBetako hazkunde ekonomikoa gorantz berrikusi zen, % 2,9raino iruhileko urtekotua), kontsumoaren ekarpen handiago bati eta inbentarioen beherakada txikiago ati esker. Kanpo sektoreak kalte egin zion hazkundeari, Trump presidenteak inportazioei muga-ergak ezartzeko aitzakiatzat erabili zuena.

### Adierazlearen azalpena

arne produktu gordina (BPGd) Analisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. errialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle konomiko bat da. Estatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez rtzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde azionalean ekoitzitakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

# INGURU MAKROA

kutxabank gestión

# KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI…

| Data | Eremua | Adierazl ea | Aurreik. |
|---|---|---|---|
| 04/02 | Japonia | PMI Nikkei fab Japonia | -- |
| 04/02 | Txina | Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa | 51.7 |
| 04/02 | Estatu Batuak | Markit AEB fabrikazioa PMI | -- |
| 04/02 | Estatu Batuak | Hileko gastua eraikuntzan | % 0,3 |
| 04/02 | Estatu Batuak | ISM manufaktura-indizea | 60.0 |
| 04/03 | Espainia | Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa | 54.8 |
| 04/03 | Frantzia | Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa | 53.6 |
| 04/03 | Alemania | Alemaniako Markit/BME fabrikazioaren PMIa | 58.4 |
| 04/03 | Eurogunea | Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa | 56.6 |
| 04/03 | Erresuma Batua | Markit, RU SAren PMI fabrikazioa | 55.0 |
| 04/03 | Alemania | Hileko xehekako salmentak | % 0,7 |
| 04/04 | Japonia | PMI Nikkei zerbitzuak Japonia | -- |
| 04/04 | Txina | Txinako PMI zerbitzuak Caixin | 54.6 |
| 04/04 | Eurogunea | YoY azpiko KPIa | % 1,1 |
| 04/04 | Eurogunea | Urte arteko KPIaren kalkulua | % 1,4 |
| 04/04 | Estatu Batuak | ADP Enplegu aldaketa | 205k |
| 04/04 | Estatu Batuak | Markit AEB Zerbitzuak PMI | -- |
| 04/04 | Estatu Batuak | Composite ISM ez manufaktura-sektorea | 59.0 |
| 04/04 | Estatu Batuak | Fabrika-eskariak | % 1,7 |
| 04/04 | Estatu Batuak | Ondasun iraunkorren aginduak | -- |
| 04/05 | Alemania | MoM fabriken aginduak | % 2,4 |
| 04/05 | Espainia | Markit PMI zerbitzuak Espainia | 56.5 |
| 04/05 | Italia | Markit/ADACI Italia zerbitzuak PMI | 54.2 |
| 04/05 | Frantzia | Markit Frantzia Zerbitzuak PMI | 56.8 |
| 04/05 | Alemania | Markit Alemania Zerbitzuak PMI | 54.2 |
| 04/05 | Eurogunea | Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI | 55.0 |
| 04/05 | Erresuma Batua | Markit/CIPS RU Zerbitzuak PMI | 54.2 |
| 04/05 | Eurogunea | Hileko xehekako salmentak | % 0,3 |
| 04/05 | Estatu Batuak | Hasierako langabezia-eskaerak | -- |
| 04/05 | Estatu Batuak | Balantza komertziala | -$55.8b |
| 04/06 | Alemania | Hileko SA industria-ekoizpena | % 0,3 |
| 04/06 | Espainia | Urte arteko NSA industria-ekoizpena | -- |
| 04/06 | Eurogunea | Markit Eurogunea xehekako merkataritza PMI | -- |
| 04/06 | Estatu Batuak | Langabezia-tasa | % 4,0 |

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

kutxabank gestión

## JRTSA:

stea erdi jaieguna izan zen merkatuentzat, eta burtsen ıgazkortasunagatik nabarmendu zen, balantza nahiko ısitiboarekin ia burtsa-indize guztietan. Gerra mertzial beldurgarriak bereganatu zuen berriro ɔertitzaileen arreta. Nolanahi ere, azken albisteek ırra horren inguruko alarma gutxiago piztu zituztenez a aldebiko goi-bilera bat egiteko Japoniaren oposamenaren ondoren Ipar eta Hego Korearen arteko ıtsioaren ahultzearen ondorioz, irabaziek nabarmen ıin zuten gora burtsetan. Steven Mnuchin AEBetako txorraren idazkaria baikor agertu zen Txinarekin ordio batera heltzeko aukeraren aurrean, borroka mertzial bat ekidite aldera. Hainbat informazio-iturriren abera, AEBetako eta Txinako agintarien arteko karrizketa diskretuak' izan ziren. Sektoreei begira, <nologikoa izan zen kaltetuena. Izan ere, ırreikuspenen arabera, Estatu Batuetako sektore <nologikoari arau zorrotzagoak ezarriko zaizkio, eta ırrek eragina izan zuen kotizazioan. Bada, *Cambridge ıalytica* enpresak erabiltzaileen datu pribatuak idegabeki" bereganatzeak ekarritako ezinegona eta :inaren aurkako protekzionismo handiago bat artzeko helburua izango lirateke arauak zorroztearen razoia.

| INDIZEAK | PREZIOA | % Aldaketa % Astean | Ald. 2018 |
|---|---|---|---|
| **MSCI WORLD (Local)** | 1.527,78 | 0,76 | -3,68 |
| **IBEX 35** | 9.620,90 | 2,43 | -4,21 |
| **DJ EURO STOXX 50** | 3.363,02 | 1,97 | -4,02 |
| DJ STOXX 50 | 2.967,99 | 1,89 | -6,60 |
| FTSE | 7.066,05 | 2,08 | -8,09 |
| **S&P 500** | 2.614,64 | 1,02 | -2,21 |
| Dow Jones | 23.968,84 | 1,85 | -3,04 |
| NASDAQ | 6.971,39 | -0,30 | 0,99 |
| **NIKKEI 225** | 21.159,08 | 2,63 | -7,05 |
| MSCI GORAKORRAK (Lo | 60.726,02 | -0,92 | -0,25 |
| MEXBOL | 46.124,85 | -0,84 | -6,54 |
| BOVESPA | 84.582,05 | 0,24 | 10,71 |
| SHANGHAI | 3.309,98 | 0,24 | -4,43 |
| Errusia Rts Mosku | 1.241,93 | -1,55 | 7,58 |

## RRENTA FINKOA:

ırtsa-merkatuetan ziurgabetasunak gora egin zuen, eta ɔertitzaileek zuhurtziaz jokatu zuten egoera horren ırrean, posizio seguruagoak bilatuz. Weidmann ındesbank bankuko presidentearen hitzak, EBZk interes-sak igotzea ez zela "guztiz irreala" izango adieraziz, ȝarren mailan geratu ziren. Horiek horrela, hamar terako bonu alemaniarra eta bere homologo espainiarra ȝta 9 op jaitsi ziren, hurrenez hurren; arrisku prima, beraz, ' puntutara murriztu zen. AEBetan, 10 urterako tasak :herantz egin zuen, % 2,76raino.

| Gobernuen tasak | Maila | Aldaketa Astean | Ald. 2018 |
|---|---|---|---|
| ALEMANIA 2 URTE | -0,60 | 0,01 | 0,03 |
| ESPAINIA 2 URTE | -0,35 | -0,03 | 0,00 |
| AEB 2 URTE | 2,28 | 0,03 | 0,40 |
| ALEMANIA 10 URTE | 0,50 | -0,03 | 0,07 |
| ESPAINIA 10 URTE | 1,18 | -0,09 | -0,39 |
| AEB 10 URTE | 2,76 | -0,05 | 0,36 |
| ALEMANIA 30 URTE | 1,16 | -0,01 | -0,11 |
| ESPAINIA 30 URTE | 2,18 | -0,07 | -0,67 |
| AEB 30 URTE | 2,99 | -0,07 | 0,25 |
| **Kreditu-spreada (op)** | | | |
| MARKIT ITRX EUROPE 06/23 | 60,41 | -0,28 | 15,49 |
| MARKIT ITRX EUR XOVER 06/23 | 285,93 | -5,05 | 53,49 |

## BISAK/LEHENGAIAK:

ıroaren balioa apenas aldatu zen dolarraren aldean, a truke-tasa 1,23$/€-an geratu zen. Lehengaiei begira, trolioaren prezioa % 1,59 jaitsi zen, nahiz eta Saudi abiak LPEErekin hitzartutako ekoizpenaren indarreko ırrizketak 2019ra arte luzatzeko asmoa agertu eta ıkeko presidenteak LPEEren ekoizpen-murrizketari re babesa eman. Bada, mugimendu horretan eragin ndia izan zuen Estatu Batuetako petrolio gordinaren ɔentarioen ustekabeko igoerak.

| Dibisak | Maila | %Aldaketa Astean | % Ald 2018 |
|---|---|---|---|
| Dolarra / Euroa | 1,23 | -0,36 | 2,46 |
| Yena / Euroa | 131,01 | 0,90 | -3,21 |
| Libera / Euroa | 0,88 | 0,34 | -1,39 |

| Lehengaiak | Maila | % Aldaketa Astean | % Ald. 2018 |
|---|---|---|---|
| Petrolioa (Brendt) | 68,75 | -1,59 | 2,89 |
| Urrea | 1.322,82 | -1,81 | 1,52 |

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.